

**RAFAELA ROMERO TORO** andereari

**Mugikortasuneko eta lurralde antolaketako Gipuzkoa diputatua**

**BORJA OLAZABAL TORO** jaunari,

**Irungo Udaleko Mugikortasuneko delegatua**

Idazki honen bitartez, Larreaundiko Auzo Elkarateak bere desadostasuna eta haserrea adierazi nahi ditu Ama Xantalen kalea obretan dagoen bitartean E25 autobusak Larreaundin eskaintzen duen zerbitzua bertan behera uzteagatik.

Autobus zerbitzua oinarritzko zerbitzua da eta bere erabiltzaile nagusiak adineko pertsonak eta mugikortasun arazoak dituztenak dira. Autobus zerbitzua bertan behera uztea jada zaugarriak diren kolektibo hauek kaltetzen ditu.

Horretaz gain, erakunde publiko guztiek mugikortasun eredu jasangarria sustatzen ari diren honetan, ulergaitza da zerbitzua okerrera joatea.

Auzokideengan dagoeneko sortzen ari diren, eta aurrerago sortuko diren eragozpenak kontutan hartuz, Auzo Elkarte honek E25 autobus zerbitzua lehen bait lehen berriz martxan jartzea edo autobus erabiltzaileentzako eraginkorrak eta erosoak izango diren alternatibak bilatzea eskatzen du, mugikortasun kolektibo eta jasangarria sustatuz eta hiritar zaugarrienak kontutan hartuz.

Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Irungo Udalari bideratzen diogu idazki hau, erakunde bakoitzak dituen konpetentziak kontutan hartuz eta elkarlanean arituz, irtenbide bat bilatu dezaten.

Larreaundi (Irun), 2022ko uztailaren 6a

Larreaundi-Olaberria Auzo elkarte